



Eibarko Udala

OFIZIAL MAILAKO AROTZ LANPOSTU BAT

Lehenengo ariketa

Eibar, 2021eko urriaren 27a



1. GAIA Zurak: ezaugarriak eta sailkapena.

1. Zur gogorrak...

- a) Oso argiak dira.
- b) Porotsuagoak dira.
- c) Ez dira hain erregaiak.
- d) Ez dira hain astunak.

2. Konpresioa, trakzioa, flexioa eta talkarekiko erresistentzia:

- a) Zuraren propietate mekanikoak dira.
- b) Zuraren propietate fisikoak dira.
- c) Zuraren propietate bereziak dira.
- d) Zuraren egiturazko propietateak dira.

3. Zurak beste gorputz batzuk sartzeari jartzen dion zailtasun handiagoari edo txikiagoari honela deritzo:

- a) Gogortasuna
- b) Dentsitatea
- c) Porositatea
- d) Homogeneotasuna

2. GAIA. Zur motak. Kubikazioa. Eskuairaldeak.

4. Kalkulatu 150 cm-ko luzera, 100 mm-ko zabalera eta 6 cm-ko lodiera duen pieza baten bolumena m³-tan.

- a) 0.09m³
- b) 0.009m³
- c) 0.009cm³
- d) Aurreko hiru erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

5. Espezie hauetatik zeintzuk dira hostozabalak?

- a) Haritza eta Pagoa.
- b) Brasileko pinua eta pinu amerikarra.
- c) Zedro gorria eta Oregon pinua.
- d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

6. Iroko egurra jatorriz...

- a) Erdialdeko Europakoa da.
- b) Asiakoa da.
- c) Ipar Amerikakoa da.
- d) Afrika Tropikalekoa da.



3. GAIA. Zuraren akatsak. Gaitzak: prebentzioa eta tratamendua.

7. Oilar-hanka...

- a) Neurketa-erreminta bat da zurgintzan.
- b) Egurra usteltzearen zantzu bat da.
- c) Egur hilaren eraztun edo geruza kontzentrikoak dira.
- d) Enborreko bihotzaren muin-erradioak dira.

8. Zurezko zuntzen ondoz ondoko bi geruza kontzentriko bereiztean sortzen diren hutsuneak...

- a) Kolainak dira.
- b) Tipulak dira.
- c) Xerrak dira.
- d) Hirurak dira zuzenak.

9. Egur hilaren eraztun edo geruza kontzentrikoei, egur biziaren beste batzuen artean daudenean, honela deritze:

- a) Ilargi formakoak.
- b) Tantakinak
- c) Bihotz-hutsunea
- d) Zurgizena

4. GAIA. Aglomeratu xaflatuak, kontratxapatuak, estratifikatuak. Taulak. Tablexa.

10. Bi taula mota orokor daude:

- a) Zur trinkoko taulak eta melaminazko taulak
- b) Egurrezko taulak eta listoi-aulak
- c) Egur trinkoko taulak eta egurretik eratorritako taulak
- d) Egur trinkoko taulak eta taula kontratxapatuak

11. Lehorrean prentsaturako zurezko zuntz-elementu oinarrizkoekin egindako taula. Fresatu, landu, lakatu edo bernizatu ere egin daiteke

- a) Melamina
- b) MDF
- c) Kontratxapatua
- d) Listoi-aula



12. Tamaina desberdineko zurezko partikulez osatutako taula. Partikula horiek erretxina edo kola motaren baten bidez elkarren artean lotuta daude eta ondoren prentsatuta.

- a) Tablexa
- b) Aglomeratua
- c) Kontratxapatua
- d) Listoi-taula

5. GAIA. Egurraren tratamenduak eta akaberak.

13. Zer da zuraren gainazalen tratamendua?

- a) Azaleraren mekanizatua da.
- b) Zuraren gainazala edertzeko eta babesteko erabiltzen diren bitarteko osagarri eta lan-prozedura guztiak dira.
- c) Zuraren mugikortasunari ematen zaion tratamendua da.
- d) Aurreko erantzunetatik bat bera ere ez da zuzena.

14. Zein da norabide zuzena eskuz lixatzean?

- a) Tangentziala zainarekiko
- b) Zeharka zainarekiko
- c) Luzetara zainarekiko
- d) Zirkularra zainarekiko

15. Zer helburu du inprimazioak egurrezko pieza baten akaberan?

- a) Egurraren barne-zelulak betetzea eta zuntzak bereiztea.
- b) Egurraren kanpo-zelulak betetzea eta trinkotzea, egurrean dauden substantziak blokeatuko dituen geruza bat sortzeko. Gainera, lotura gisa ere balio du azalaren eta lakaren artean.
- c) Egurraren kanpo-zelulak betetzea eta zuntzak bereiztea.
- d) Egurraren kanpo-zelulak betetzea eta bereiztea, egurrean dauden substantziak blokeatuko dituen geruza bat sortzeko.

6. GAIA. Loturak eta mihiztadurak egurrean.

16. Matxinbratze-lotura. Zer da?

- a) Oholak ertz batean mihia eramatea eta bestean arteka.
- b) Ertz biek arteka eramatea eta mihia aparte.
- c) Mihia material gogorragoz egitea.
- d) Piezak material erresistentez egindako mihi batez lotzea.



17. Mihiztadura mota ohikoena ate trinko batean.

- a) Mihiztadura angelu zuzenean, kaxa eta orpodun-mihia
- b) Miru-buztan mihiztadura.
- c) Zur-erdikako mihiztadura T eran.
- d) Mihiztadura angelu zuzenean mihi irekiz.

18. Zer da egur-piezen juntura bat?

- a) Pieza eta angelu batzuk batzea.
- b) Bi pieza angeluan batzea.
- c) Bi pieza beren muturretatik batzea.
- d) Bi pieza 90 graduko angeluan batzea.

7. GAIA. Altzarien muntaketa.

19. Sukalde baten instalazioan...

- a) Lehenik beheko altzariak jartzen dira.
- b) Lehenik goiko altzariak jartzen dira.
- c) Berdin du zein den hurrenkerak.
- d) Hobe da lehenik beheko altzariak jartzea, baina ez dauka garrantzi handirik.

20. Zertarako erabiltzen da kaxola-banda?

- a) Altzarietako ateak jartzeko
- b) Barruko igarobideko ateak jartzeko
- c) Ate korazatuak jartzeko
- d) Burdineriak kaxoietan jartzeko

21. Sukaldeko aulki bat ahalik eta erosoena izateko, jarlekuak, gutxi gorabehera, altuera honetan egon behar du:

- a) 35 cm
- b) 45 cm
- c) 55 cm
- d) Hirurak dira zuzenak.



8. GAIA. Egurrezko eta kortxozko zoladurak. Parketa. Oholtzak edo tarimak.

22. Zer dira oholtzak edo tarimak?

- a) Horman jartzen den egurrezko zoladura bat da.
- b) Mihiztaduraz lotutako egurrezko zoladura bat da.
- c) Errematxez lotutako egurrezko zoladura bat da.
- d) Inpaktuko itsasgarri batez lotutako egurrezko zoladura bat da.

23. Zer da parketa?

- a) Egurrezko pieza barnehutsak.
- b) Zoruan jartzen den produktu bat da, ez irristatzeko.
- c) Egur trinkoko zoru bat da.
- d) Hormen estaldura bat da.

24. Zer da tarima flotatzailea?

- a) Euskarriari itsatsita edo iltzatuta ez dauden zurezko zoladurak.
- b) Zur kolatuzko zoladurak.
- c) Arrastelean iltzatutako zurezko tarima.
- d) Oso arina izateagatik flotatzen duen zurezko tarima.

9. GAIA. Itsasgarriak: zintak eta kolak

25. Zer itsasgarri mota erabiliko dugu nasaitasuna daukan kaxa eta mihi bat enkolatu eta betetzeko?

- a) Kola zuria.
- b) Ukipen-kola.
- c) Poliuretanozko kola.
- d) Silikona.

26. Oinarri urtsua du eta haren hondarrak urez garbitzen dira. Zer kola mota da?

- a) Muntaketako itsasgarria.
- b) Ukipen-kola.
- c) Poliuretanozko itsasgarria.
- d) Kola zuria.



27. Ukipen-kola bidez juntatu beharreko bi azalera lau eta porotsutan, honela egingo da lan:

- a) Azalera bakoitzari kola-geruza bat eman eta gero juntatuz.
- b) Azalaretako baten aurpegia kolaz blaitu eta prentsatzuz.
- c) Komeni da azalera bakoitzari kola-esku bi ematea eta juntatu eta gero presionatzea.
- d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.

10. GAIA. Arotzaren makineria

28. Erreminta hauetatik, zein erabiltzen da angelu desberdinei ebaki garbiak egiteko?

- a) Zinta-zerra.
- b) Angeluen mihiztagailua.
- c) Inglete-zerra.
- d) Lodieran arrabotatzeko makina.

29. Pieza trinko luze baten aurpegia eta ertza lisatu behar dut. Zer makina erabiliko dut?

- a) Eskuaira.
- b) Zinta-zerra.
- c) Ertzak estaltzeko makina.
- d) Arrabotatzeko makina.

30. Hauetako bat makina eramangarria da.

- a) Tupia.
- b) Inglete-zerra.
- c) Zinta-zerra.
- d) Lodieran arrabotatzeko makina.

11. GAIA. Arotzaren erremintak

31. Zurgintzako ebaketa-erremintak honela gorde behar dira:

- a) Kontu handirik gabe erreminta-kutxan.
- b) Zorroztuta eta zainduta.
- c) Ondoen dauden kutxan.
- d) Ondo zorroztuta eta aho edo ertza ondo babestuta.



32. Zer hartzen da zurgintzako eskuzko erremintatzat?

- a) Arotz-eskuaira, bihurkina edo maratila, mailua, metroa, kurrikak, iltzeak eta tirafondoak, trintxak, alikateak, espatula eta eskuzko arrabota.
- b) Arotz-eskuaira, trintxak, bihurkina edo maratila, mailua, metroa, kurrikak, iltzeak, alikateak, espatula eta eskuzko arrabota.
- c) Bihurkina edo maratila, arotz-eskuaira, mailua, metroa, kurrikak, iltzeak eta tirafondoak, trintxak, alikatea eta eskuzko arrabota.
- d) Arotz-eskuaira, bihurkina edo maratila, mailua, metroa, kurrikak, trintxak, mazoa, alikatea, espatula eta eskuzko arrabota.

33. Zurgintzako lan bat egiteko, lehenik:

- a) Erreminta bat hartu eta lanean hasiko gara.
- b) Lan bakoitzerako egokiena den erreminta aukeratuko dugu.
- c) Lana ahalik eta ondoen egingo dugu erremintekin.
- d) Lana egiteko mailua, bihurkina edo maratila eta kurrikak erabiliko ditugu.

12. GAIA. Neurtzeko eta marratzeko tresnak, erremintak eta aparatuak

34. Zurgintzako neurketa-elementua

- a) Flexometroa
- b) Laser-neurgailua
- c) Hauek guztiak.
- d) Hagaxkadun metro tolesgarria.

35. Zeintzuk dira marraketa- tresnak?

- a) Eskuaira, erregela, eskuaira faltsua.
- b) Eskuaira, eskuaira faltsua eta gramila.
- c) Eskuaira, zurezko erregela, eskuaira faltsua.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

36. Zer tresna edo erreminta erabiliko ditut neurtzeko:

- a) Erregela, flexometroa, eskuaira eta kalibrea.
- b) Zinta metrikoa, eskuaira, erregela eta eskuaira faltsua.
- c) Zinta metrikoa, nibela, kalibrea eta eskuaira faltsua.
- d) Flexometroa, eskuaira, gramila eta eskuaira faltsua.



13. GAIA. Ateak, leihoak eta pertsianak.

37. Zurezko barne-ate lauen zabalera ohikoenak hauexek dira:

- a) 63 cm, 73 cm eta 83 cm.
- b) 62,5 cm, 72,5 cm eta 82,5 cm.
- c) 65 cm, 75 cm eta 85 cm.
- d) 67 cm, 77 cm eta 87 cm.

38. Non jartzen diren kontuan hartuta, ateak honelaxe sailka ditzakegu:

- a) Ate laua, zurgintzako ateak eta ate beiraduna.
- b) Ertz ezkutuko atea eta ertz ageriko atea.
- c) Barruko atea, etxe-sarrerako atea, kanpoko atea.
- d) Ate berdindua, gainjarritako atea eta ate bistaratua.

39. Leiho batek duen urarekiko estankotasun-gradua, besteak beste, faktore hauen mende dago:

- a) Estankotasun-junturaren posizioa, deskonpresio-kamerak eta uraren kanalizazioa, leiho-isurkiak eta junturak estaltzeko listoiak.
- b) Burdinerien posizioa eta leihoaren inprimazio mota.
- c) Uraren kanalizazioa, juntak estaltzeko listoiekin batera.
- d) Estankotasun-junturaren mende dago bakarrik.

14. GAIA. Burdineriak, bandak edo bisagrak, serrailak, heldulekuak, eskutokiak, ate ixtekoak.

40. Non egiten da kaxola-banda jartzeko fresaketa?

- a) Alboko ertzean
- b) Ate osteko aurpegiaren ertzean.
- c) Atearen ageriko aurpegiaren ertzean.
- d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.

41. Zein da falleba edo leiho-barraren eginkizuna?

- a) Leiho-orriaren itxiera finkatzea.
- b) Leiho baten orria artikulatzea.
- c) Estankotasun-juntura gisa jokatzen duen elementua.
- d) Sarraila edertzea.



42. Gontzen kaxak mekanizatu, torlojuak jarri eta atea ipini ondoren, ikusten badugu bisagrak jarri ditugun orriaren ertzak talka egiten duela markoarekin eta atea ezin dela itxi, honengatik gertatzen da:

- a) Gontzen kaxak sakontasun larregirekin hustu dira.
- b) Gontzen kaxak sakontasun gutxirekin hustu dira.
- c) Atea zabalegia da eta ez da baoan sartzen.
- d) Aukeratu ditugun gontzak ez dira oso egokiak.

15. GAIA. Zurgintzako mantentze-lana.

43. Pitzatuak, korapiloak eta beste akats batzuk betetzeko hainbat produktu daude merkatuan; hauexek dira, nagusiki:

- a) Mastikak edo masillak eta argizariak.
- b) Lakak.
- c) Silikonak.
- d) Disolbatzaileak eta kolak.

44. Zurgintzan erabilitako makinaren mantentze-lana honelakoxea izan behar da:

- a) Arrunta eta egunero egitekoa.
- b) Askotarikoa eta programatua.
- c) Astero egitekoa.
- d) Arrunta eta programatua.

45. Zer da ebaketa-tresnetan gertatzen den makestu izeneko efektua?

- a) Taula manufakturuak ebakitzeagatik gertatzen dena.
- b) Zuraren eta eratorrien erretxinak askatu eta, ebaketan sortutako hautsarekin nahastean, erreminten ahoari itsatsita geratzea; horren ondorioz, erremintek ez dute behar bezala ebakitzen.
- c) Produktu kimikoak askatu eta, ebaketan sortutako hautsarekin nahastean, erreminten ahoari itsatsita geratzea
- d) Aukera guztiak dira zuzenak.

16. GAIA. Altuerako lanak.

46. Zer dira bizi-lerroak?

- a) Bizi-lerroak erorketen aurkako sistema homologatuak eta zertifikatuak dira, altuerako lanak egiten direnean pertsonak erortzea saihesteko.
- b) Altuerako lanetarako babes-sistemak dira.
- c) Aldamioen zoruetan markatzen diren segurtasun-lerroak dira, altuerako lanak egiten direnean pertsonak erortzea saihesteko.
- d) Lan-eremuan dauden elementuak dira (adibidea: estalki baten habeak), haien egituraren parte direnak.



47. Estalki gaineke lan batean, adierazi elementu hauetatik zeintzuk ez diren segurtasun-ainguraketa on bat, egoera onean daudela egiaztatu arren.

- a) Hormigoizko karelak.
- b) Tximiniak.
- c) Euri-uren edo ur beltzen hustubideko elementuak.
- d) Habeak eta forjatuak.

48. Erortzeko arriskuan lan egitera behartuta dauden langile guztiek erabiliko dute erorikoen aurkako arnesa, honako altuera honetatik gora:

- a) 5 metro.
- b) 2 metro.
- c) 6 metro.
- d) 4 metro.

17. GAIA. Aldamioen muntaketa.

49. Zer aldamio mota da gehien erabiltzen dena:

- a) Oin biko aldamio soila
- b) Egurrezko aldamioa
- c) Aldamio esekia
- d) Hodi-aldamioa

50. Aldamio tubularrak muntatzeko, hauek kontrolatu beharko dira nahitaez:

- a) Muntaketa-, erabilera- eta desmuntaketa-faseak: objektuen edo hirugarren pertsonen erorikoen aurkako babesak.
- b) Babes kolektiboa aukerakoa da.
- c) Muntaketan zehar ez dago ezer derrigorrezkorik.
- d) Obra zuzendariaren edo enpresariaren aginduak.

51. Aldamioetan derrigorrezkoa da segurtasun-arnesa erabiltzea:

- a) Babes perimetralik gabe lan egiten denean
- b) 2 metrotik gorako erorikoaren arriskua dagoenean
- c) Hura erabiltzea langilearen esku dago
- d) Lehen bi kasuetan



18. GAIA. Soldadura-akatsak ikuskatu eta antzematea.

52. Zertan datza soldadura-ikuskaritza?

- a) Soldadura-kordioak egiaztatzean.
- b) Soldaduraren estetika egiaztatzean.
- c) Soldaduraren estiloa egiaztatzean.
- d) Ez da beharrezkoa inolako egiaztapenik egitea.

53. Soldaduretan akatsak eragin ditzaketen arrazoiak, hauexek dira, besteak beste:

- a) Lotu beharreko piezen prestaketa, disposizioa edo garbiketa desegokia.
- b) Soldadura desegoki egitea.
- c) Oinarrizko materialaren soldagarritasun desegokia.
- d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

54. Noiz kontsideratzen da soldaduran akats bat dagoela?

- a) Haren neurriarengatik edo kokalekuagatik junturaren akatsa eragin dezakeenean.
- b) Estetikoki onargarria ez denean.
- c) Oso zaila da akatsak gertatzea.
- d) Soldaduran beti daude akatsak.

19. GAIA. Lan-arriskuen prebentzioa ofizial mailako arotz lanpostuan/Arrisku-faktoreak. Segurtasun-bitartekoak, -ekipoak eta -teknikak. Banakako babes ekipamendua.

55. LAPLen arabera (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea), langileak aldean eramateko edo erabiltzeko edozein ekipamendu, langilea babesteko arrisku batetik edo batzuetatik,

- a) Laneko arropa da
- b) Babes Arriskuen Azterketa da
- c) Norbere Babes Ekipamendua da
- d) Laneko janzkera da

56. Elektrokuzio bat gertatuz gero, egin behar den lehenengo gauza zera da:

- a) Biktimari lagundu.
- b) 112 telefonora deitu lehenbailehen etor daitezen.
- c) Korrontea moztu.
- d) Segurtasunagatik ezer ez egin.



57. Esaten dugunean makina batek babes-estalki finko bat duela, zera duela esan nahi dugu:

- a) Banakako Babes Ekipamendu bat
- b) Babes kolektibo bat
- c) Babes-estalki pertsonal bat
- d) Makinaren pieza bat

20. GAIA. Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Generoaren ikuspegia botereen jardunean eta Euskal Administrazio Publikoetan barneratzeko neurriak.

58. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Generoaren ikuspegia botereen jardunean eta Euskal Administrazio Publikoetan barneratzeko neurriak. Lege hau aplikatzen da:

- a) EAEko administrazioan.
- b) Foru Administrazioan.
- c) Toki Administrazioan.
- d) Guztietan da nahitaezkoa.

59. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Generoaren ikuspegia botereen jardunean eta Euskal Administrazio Publikoetan barneratzeko neurriak. Zein ez da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren Lege honen printzipio orokor bat?

- a) Berdintasuna
- b) Errespetua
- c) Integrazioa
- d) Aurreko hirurak dira zuzenak.

60. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa: Generoaren ikuspegia botereen jardunean eta Euskal Administrazio Publikoetan barneratzeko neurriak. Zein da berdintasunaren arloari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde ofiziala?

- a) Clara Campoamor elkarte
- b) 13 Rosas elkarte
- c) Zutik Emakumeak
- d) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea

Erreserbak:

61. Ohol aglomeratua, egurra imitatzen duen paper plastifikatu batez estalia; kolore lauetakoa ere izan daiteke.

- a) Melamina
- b) DM
- c) Tablexa
- d) Formika

62. Zer ohol-neurri daude oro har biltegi gehienetan?

- a) 2440x1220mm
- b) 240x120.mm
- c) 250x150cm
- d) 330x122cm

63. Lan-arriskutzat jotzen da:

- a) Lanean erabiltzen den eta langilearen bizitza arriskuan jartzen duen edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.
- b) Lanaren arrazoiz edo ondorioz izandako gaixotasunak, patologiak edo lesioak.
- c) Langileak lanaren ondoriozko kalte jakin bat jasateko aukera.
- d) Lanean oso arraroa da lan-arriskua egotea.

64. Aukeratu zuzena ez den aukera. Irekitzeko moduaren arabera, atek izan daitezke:

- a) berdinduak.
- b) tolesgarriak.
- c) lerragarriak.
- d) eraisgarriak.

65. Honako erremintetatik, zeintzuk erabiltzen dira erauzteko?

- a) Belarridun mailua, ahuntz-hanka, arotz-mailua.
- b) Belarridun mailua edo arotzarena, kurrikak, ahuntz-hanka.
- c) Ahuntz-hanka, iltzea oketzeko laguntzako bihurkina eta arotzaren mailua
- d) Ahuntz-hanka, xaflaztatzeko mailua, kurrikak eta alikateak.